

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Ez dugu zuzeneko harremanik izango bezeroarekin, aplikazio honen oinarria autozerbitzua baita. Hala ere, bezeroek galderarik edo arazorik edukiko balu guk konpondu edo lagunduko genioke. Hau errazteko, aplikazioan "chat" bat egongo da bertan idatzi ahal izateko. Nahikoa ez balitz, gure gmail-a edo enpresaren telefono zenbakia erraztuko zaie bezeroei.

Bezeroak erakartzeko publizitatea egingo dugu sare sozialen bidez; hala nola, Instagram eta Facebook. Gure bezeroak mantentzeko, puntu-sistema bat ezarriko dugu: 10€-ko erosketa bakoitzarengatik puntu bat emango diegu eta puntu hauek aplikazioan gordeko dira erosketetan erabili ahal izateko.